

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernua finantzaketa egonkorreko bideak aztertzen ari da gero eta gehiago hondatzen ari den errepide-sarea zuzentzeko

Nafarroa azken postuetan dago bide-zoruaren egoera, seinale bertikal eta bazter-babesari dagokionez, Errepidearen Espainiako Elkarteak autonomia erkidegoak alderatzeko egindako azterketaren arabera

Jueves, 10 de marzo de 2016

Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik ostegun honetan [iragarri](#) duenez, Foru Gobernuak finantzaketako bide egonkorak aztertzen ari da; hala, 2010. urtetik Nafarroako errepide-sarearen mantentze-lan eta kontserbaziorako inbertsioei eragiten dien defizit "errepikakorrarekin" amaituko da; sarea gero eta gehiago hondatzea eragiten ari dira, gainera.



Pirinioetako autobia.

Lehendakariordeak hiru parametro aipatu ditu: inbertsio errealearen eta Errepideen III. Planean aurreikusitakoaren arteko aldea (azken 6 urteotan aurreikusitako 259,88 milioietatik 107,89 ez dira egikaritu); aurtengo eta aurreko ekitaldietako 25-30 milioiko inbertsioaren aurrean, 45 eta 90 milioi arteko zentzuko gastua proposatzen du; gainerako autonomia erkidegoekin egindako alderaketa eta, haren arabera, Nafarroa azken postuan geratzen da.

Ayerdik, "hain sendoak" diren datuak ikusirik, eragile politiko eta sozialei diagnostiko horrekin "bat egiteko" eskatu die irtenbideak bilatzeko orduan aurrera pausoak ematen jarraitu dadin. Aipatu duenez, Gobernuak ez du nahi egungo egoera legealdi guztian zehar iraun dezan.

Irtenbideen azterketan aurrera egiteko, Gobernuak diru-sarreraren gaia aztertzen duen lantalde bat sortu du, diru-sarrera errepikakorrak (eta ez apartekoak) ahalbidetuko dituzten finantzaketa-sistemak aurkitzeko asmoz.

Lurraldeko eskualdeen arteko asimetria nola murriztu ere aztertzen ari da, Iruña-Tutera eta Iruña-Irun ardatzei kalterako eragiten diena.

Lantalde hori lizitazio bat prestatzen ari da; haren bidez, dauden aukerak aztertu eta ebaluatu ahalko dituen laguntza teknikoak kontratatu nahi da.

Argazkia

Errepidearen Espainiako Elkarteak 2014ko "Errepideak Kontserbatzeko Beharrei" buruz egindako azterketaren arabera (azkenekoa), Nafarroako bide-sarearen egoera "eskasa" zen 2013an bide-zoruaren egoera (laugarren txarrena), seinale bertikal (azkenurreko txarrena) eta bazter-babesari (azken lau adierazle txarrenen artean ere) dagokionez. Adierazleek Foru Komunitatea Espainiako autonomia erkidegoen azken postuetan jartzen zuten dagozkion tauletan, Ayerdik azpimarratu duenez. 2014, 2015 eta 2016an, kontserbazioko aurrekontua baldintza beretan mantendu da.

"Aurrez azaldu dudan guztiaren ondorioa errepide-sarea gero eta gehiago hondatzen ari dela da, eta beharrezko inbertsioak handiagoak dira, kostu handiagoarekin", adierazi du.

Kontseilariak aipatu duenez, azterketa horrek kilometro eta urteko 55.000 euroko inbertsioa egiteko beharra iradokitzen du. Azken urteotako inbertsioa 5.000 euro baino gutxiagokoa izan da.

Sektorean, kontserbazioan egin beharreko inbertsiorako beharraren erreferentzia ondare-balioaren % 2 eta % 3 artean kokatzen da (sarea eraikitzeak balioko zuena), hau da, Nafarroan 4.542 milioi 3.600 kilometro ingururako; beraz, kontserbaziorako 90,84 milioi/urteko esleitu beharko zen, beheko maila erreferentziat hartuz (% 2). Errepide Planak 45 milioi hartzen zituen, eta langile teknikoek 70 eta 75 artean gomendatzen du (ondare-balioaren % 1,6).